



22 Zkia: 2020ko Maiatza

Artikutzako ttanttak

Artikutzako ttanttak

Aurkibidea

Aurkibidea.....	2
ELKARRIZKETA	3
ARTIKUTZA IRUDIETAN	6
ZER BERRI?	8
Alarma-egoera ezarri zenetik Artikutzan egin diren lanak.....	8
Zer hegazti ikus daitezke Artikutzan?.....	9
Zer jaten dute hegaztiak?.....	10
ERRAIETATIK.....	11
Udabrria hldu da jada. Zer aldaketa izaten dira ekosisteman?.....	11
Ingurumenaren Nazioartko Eguna.....	11
BILDUMA.....	11
Arrano beltza, <i>Aquila chrysaetos</i>	12
SUAREN EPELEAN.....	13
IRUDIEN GALERIA.....	13

Argazkiak: Kontrakoa adierazten ez bada A. Santana eta E. Ruiz.

Portada: I.Uranga

ELKARRIZKETA

Nafarroako Gobernuak, fauna zaintzeko egiten dituen lanen barruan, mehatxupearan edo presentzia txikia duten hegazti espezie batzuen jarraipen etengabea egiten du, haiei buruzko ezagutza handitzeko eta kontserbazio egoera hobetzeko. Artikutzan ere, Nafarroako parte bezala, hegaztien jarraipena egiten da.

Miel Mari Elosegi Nafarroako Gobernuko fauna-teknikarietako bat da eta babestutako fauna-espezieen jarraipenaren arduradunetako bat..

Zer moduz Miel Mari? Eskerrik asko gurekin egoteagatik. Esango diguzu Artikutza aldean ikusi daitezkeen hegazti espezieen artean, zeintzuk daukaten segimendu berezia?



Miel Mari Elosegi Nafarroako Gobernuko fauna teknikaria. Argazkia: M. Elosegi.

Ongi gaude, milesker. Oro har, animalia eta landare espezie eta habitat guztien kontserbazioaz arduratu behar dugu, baina kontserbazio-egoera txarragoa duten espezieei arreta handiagoa eskaintzen zaie.

Horregatik zentsatzen dira belatz handiak, sai zuriak, arrano beltzak, sai arreak eta abar, 5 edo 10 urteko maiztasunez espeziearen arabera. Ugatzak, basiloak, basoilarrak edo okil

gibelnabarrak aldiz, segimendu finagoa dute, desagertzeko arriskuan daudelako. Azken urteotan hasi gara Artikutzako lan taldearekin ugatzen, arrano beltzen, okil ertainen eta gibelnabarren jarraipena martxan jartzen.

Oro har, kontatuko diguzu zer egiten duzue hegazti horien jarraipen programetan?, Donostiako Udaleko basozainekin elkarlanean egiten duzue, ezta? Noiz jarri zen martxan?

Ugatzen jarraipena Nafarroako Pirinio aldean oso aspaldikoa da, duela 30 urtekoa gutxienez, baina azken jarraipen finagoa egiten da, datu guztiak modu estandarizatuan populazioaren bilakaera aztertu ahal izateko. Ugatzak maiz Nafarroako ipar mendebaldean, 2009an jarri zen martxan jarraipen koordinatua. Ilean behin Nafarroa, Araba eta Gipuzkoako laguntzaileak Baztan, Aralar, Andia eta abarretara igotzen dira, jarraipena egiteko. Azken urteotan datu asko bildu dira eta inguru saiatzen direla baieztatu ahal izan da. Artikutzako basozainek bat egin lan-talde honekin eta denborak erakutsiko digu zein informazioa lortzen

urteetan bildu eta ikusten zirenez ugatzen basozain eta ugatzen hauetan ugaltzen dute jarraipen den bertatik.

Okil gibenabarren aurreneko zentsoak Iratin edo Kinto aldean egin ziren baina azken urteotan askoz mendebalderago aurkitu dira eta jarraipena Nafarroako iparralde osora zabaldu da. Basozainek basolanetan ari direnean okil espezie batzuei buruzko informazioa biltzen dute eta honi esker asko ikasten ari gara. Duela 25 urte inguru Belate aldean aurkitu ziren okil gibelnabarrak, aurrerago Bertizen, eta azken urte hauetan Aralartik hurbil aurkitu ditugu kumatzen. Espeziea ez daukagu Artikutzatik oso aparte, baina ez dugu, momentuz, bertan aurkitu. Ez aurkitzeak ez du esan nahi bertan ez dagoenik. Denborak esanen digu hori.

Imajinatzen dut hegaztien jarraipena egitea ez dela erraza izango. Nola egiten duzue? Bestela, hegaztiak identifikatzeko beste arrastoren bat erabiltzen duzue?

Hegazti espezie bakoitzak bere jarraitzeko sistema du. Ugatzak bista handiko lekuetatik kontrolatzen dira eguraldi oneko egunetan teleskopioekin, askotan saien bazkalekuen inguruan.

Okilak basoan bizi dira eta hauek aurkitzeko garai batean grabatutako okil-kantuak erabiltzen ziren hauek erakartzeko baina gaur egun ez da teknika hori erabiltzen. Okilak aurkitzeko jarraibideak prestatu ditugu, eta araldia (udaberri hasieran) izaten da horretarako garai egokiena. Belarria hezi behar da, kantuak ezagutu behar direlako. Okil batzuk kantuen bidez ezagutzea ez da oso zaila bereziak bait dira oso. Okil berdea edo beltza urrunetik entzun daitezke eta erraz bereiz daitezke. Beste batzuk zailxeagoak dira.

Bestalde, uzten dituzten arrasto eta seinaleetan oinarrituta informazio ona lor daiteke. Okil beltzen kabiak adibidez, ikusgarriak dira, eta erraz ezagutzeko modukoak. Gibelnabarren kabiak ez dira hain ikusgarriak, eta beste espezie batzuk antzekoak egiten dituzte, baina bazka-bila askotan uzten dituzte marka bereziak zuhaitzetan. Horrek espeziea ziurtasun osoz ezagutzeko bidea ematen ez badu ere, asko lagun dezake.

Eta denbora honetan, atera duzue ondoriorik? Espezie horien bilakaera positiboa ala negatiboa da? Topatu duzue espero ez zenuten espezieren bat?

Nafarroan hegaztien aniztasun handia dago eta egoera oso desberdinetan ditugu espezie batzuk edo besteak. Leku irekietako hegaztiak, oro har, bilakaera txarra izan dute. Nekazaritzaren intentsifikazioak leku batzuetan eta baserri eta landa-eremuen gainbeherak inguru honetan larreak eta leku irekiak ixtea ekarri du basoko espezieen mesedetan. Artikutzan basoetako espezieek kontserbazio-egoera ona dute. Pitxartxarrak, antzandobi arruntak, galeperrak, edo berdantza horiak, aldiz, leku irekiak behar dituztenez, okerragoa.

Artikutzako basozainekin jarraitzen ari garen espezieei dagokienez ugatza oso poliki bada ere, hobera egiten ari da Piriniotan, eta gero eta maizago ikus dezakegu Baztan, Mendaur eta inguruko mendi gaineretan, batez ereazienda dabilen larreetan.

Artikutzako basoak ez dira ugazentzat egokiak, baina goiko larreak eta mendi-gainak, bai.

Okil ertainak eta gibelnabarrak ere, oro har, hobera egin dute, duelako eta basoak heldu ahala, bertan habitat egokia aurkitzen beltzen populazioa egonkor dagoela dirudi baina Artikutzatik bikote bat galdu da azken urteotan. Une honetan, lekuz mugitu zantzuak ikusten ari gara eta litekeena da Artikutza inguruko mendiren batean sartu izana.

Azken urteotan gero eta arruntagoa bilakatu da sai beltza ikustea. Bere egoera Iberiar Penintsulan hobera egiten ari da eta ugatzen jarraipena egiten ari garela zenbait aldiz azaldu zaigu leku batean edo bestean.

Artikutza eta Bertiz antzeko ezaugarriak dituzten bi enklabe dira, eta askotan bata bestearekin konparatzen dira. Zertan bereizten dira Artikutzako eta Bertizko basoak? Basoko hegaztien populazioa antzekoa da?

Bi altxor dira, zentzu askotan. Bakoitzak bere historia berezia du, baina azken urte askotan bertako basoa oso gutxi ustiatu da eta oso ongi kontserbatutako baso eta errekak dituzte. Bertiz txikiagoa da 2000 hektarea pasa, eta zertxobait Artikutza handiagoa, 3700 hektarea. Bertako basoak denborarekin heldutasun maila handia lortu dute eta hor agertzen ari zaizkigu habitat hau behar duten onddo, landare eta animalia populazio bikainak. Eremu hauetatik kanpo oso zaila da heldutasun-maila eta kalitate hau duten bertako basoak aurkitzea inguruko mendietan. Artikutza bezalako lekuak bioaniztasuna kontserbatzeko lehen mailako eremuak dira eta besteak beste, gizakiok bazter guztiak eraldatu aurretik bertako basoak nolakoak ziren erakusteko balio dute.

Hegaztiei dagokienez, Bertizen okil gibelnabar eta ertainak ongi kumatzen ari dira. Eremu txikia denez, bertan ez dago bikote asko izateko lekurik eta azken urteotan aurkitu ditugu okil ertainak Bertiztik kanpo kumatzen, Etxalar edo Baztan aldean. Alegia, Bertiztik okilak inguruetara zabaltzen ari dira leku egokien bila.

Artikutzan ez ditugu momentuz okil espezie hauek aurkitu. Zenbait ikastaro antolatu ditugu bertako basozainekin espezie hauek ezagutzen joan daitezen baina momentuz ez gara aurkitzeko gai izan. Zalantzarik gabe, habitata egokia da, eta bertara iritsi ez badira, espero dugu datozen urteetan aurkitu beharko genituzkela bertan. Okil ertainak Leitza, Lesaka edota Etxalar aldean agertu dira. Artikutzan ez badaude, denbora kontua izanen da hor sartzea. Gibelnabarrak ere, ez dira oso aparte ibiliko.

Artikutzan piidoak edo beste hegaztiren bat egotea erraztuko lukeen ekintzaren bat egitea komeniko litzatekeela uste duzu?

Artikutza basoz estalita dago, eta zaila da hegazti espezien zerrenda asko luzatzea. Okilen alde zenbait lekutan habitata hobetzeko lanak egin zan dira, hildako egur kantitatea handitzeko lanak, adibidez, baina ez dirudi Artikutzak honen beharra duenik, hildako egur asko dagoelako. Artikutzatik kanpo bertako baso-puska batzuk heldutasunera iristen uztea lagungarria izan liteke, espezie hauen mugimenduak errazteko.

Artikutzako zati handiena baso-eremu itxia da eta larre eta leku ireki batzuk kontserbatzen badira espezie batzuk gehiago izateko aukera egon liteke.

COVID19 alarma-egoeran egon den bitartean, onura handiena ingurumena dela esan dezakegu. Uste duzu konfinamendu-aste horien ondoren hobekuntzaren bat nabarituko duzuela zuen azterketa-eremuan?

Etorri dena latza izan da eta gaingitu egin gaitu. Zartako ekonomikoa sekulakoa da. Horrek esan nahi du datozen urteetan diru publikoa moztuko dela gauza askotarako. Tamalez, ingurugiroaren kontserbazioa mozten duten lehendabizikotakoa izaten da. Hortaz, baliabide gutxi izanik, zailagoa zanen da zaila da gauzak aurrera ateratzea. Dena dela, dirua ez da dena eta badaude oso gutxirekin egin daitezken lanak eta horretan ahalegindu beharko da.

Konfinamendu garaian kutsadura jaitsi da, animalia batzuk lasaixeago egon dira, eta zapaldu ez den landaredia berritu egin da, baina denok esaten dugu dela. Normala al zen generaman martxa? Uste dut gizarteak dituen baloreen mailan, ezetz. Egoera honek mundua nahi dugun eta batez ere ondorengoei zer nahi diegun pentsatzen hasteko, aurrerapausu ona normaltasunera itzuli behar kontsumo-ereduan edo guztiak balioko balu zer nolako nolako mundua utzi litzateke.

ARTIKUTZA IRUDIETAN



Aquilegia vulgaris. Argazkia: I.Uranga.



Soldanella villosa. Argazkia: I.Uranga.

ZER BERRI?

Alarma-egoera ezarri zenetik Artikutzan egindako lanak

2020ko martxoaren 14an, Covid-19ak eragindako osasun-krisia dela eta, alarma-egoera ezarri eta berrogeialdia hasi zen nazio mailan. Gehienok etxean geratu ginen, atera gabe, funtsezko lanak egin behar zituztenak izan ezik, hala nola osasun-langileak, poliziak eta suhiltzaileak. Eta Artikutzan? Artikutzako administratzaile eta basozainen koordinatzaile Iñaki Urangak kontatu digu nola eraman duten egoera ingurunearen babesa bermatzen jarraitu ahal izateko.

Alarma-egoera ezarri ondoko hasierako asteetan, erdira murriztu zen Artikutzako langile-kopurua, jendearen arteko kutsadura ahal bezainbeste saihesteko.




Artikutzan pertsonen arteko segurtasun-distantziari eustea zaila ez denez, langile guztiak itzuli dira lanera apirilaren 14tik; hori bai, hainbat lan-arauri jarraitu eta beharrezko segurtasun-distantzietan eutsi behar diete.

Zaintza-lanak egiten jarraitu da, eta beharrezkoak izan direla ondorioztatu dugu. Apirilaren 9an, ostegun santuan, sutea piztu zen Beltzuntzan, eta Nafarroako suhiltzaileek esku hartu behar izan zuten sua itzaltzeko.

Apirilaren 17ko gauean, bestetik, isileko ehiztari bat aurkitu zuten; Ertzaintzak geldiarazi eta isuna jarri zion. Ingurunea hobetzeko lanek aurrera darraie. Izan ere, perimetroaren itxituraren zati bat kendu eta informazio-kartel berriak jarri dira.

Dena den, beste jarduera batzuk, hala nola bisita gidatuak (igandeetan egiten dira) eta Natura Eskolaren eskola-bisitak, bertan behera utzi behar izan dira. Aterpetxea ere, asteburuetan alokatzen dena, itxi behar izan zen ezinbestez, eta bertan behera utzi behar izan dira hilabete hauetarako erreserba guztiak.

Artikutzaren aterpetxea. Artikutzaren itxitura. Apirilean egondako sutea.
Argazkia: I.Uranga.



Era berean, aterpetxean konponketa-lanak egiteko eta Artikutzako webgunean atal berri bat jartzeko aprobetxatu dugu etenaldia. Erosketaren mendeurrena dela-eta egindako liburuak eta bideoa jarri dira atal horretan, zehazki, baita azken urteetan egindako ikerketa batzuk ere. Badirudi deseskalatzeak laster emango duela natura-paradisu honetaz gozatzeko aukera, baina kontuan hartu behar dugu Artikutza Nafarroa dela eta bisitari gehienak Gipuzkoatik sartzen direla eta, horregatik, oraindik ez dagoela argi noiz ireki ahalko dituen atak.



Esteka, <https://www.donostia.eus/ataria/es/web/ingurumena/natura->

Zer hegazti ikus daitezke Artikutzan?

Baso heldu eta heterogeneoak ditugu Artikutzan. Bikainak dira enborretan barrunbeak eta egur hila behar dituzten baso-hegaztien espezieentzat habiak egiteko, atsedean hartzeko edo jateko. Haietako batzuk baso helduetan baino ez dira aurkitzen.

Mendian paseatzea aitzakia bikaina da inguruko natura-ingurunea ezagutzeko, hala nola Artikutzan bizi diren hegaztiei buruz gehiago jakiteko. Ez ahaztu prismatikoak!

Aranzadi Zientzia Elkarteko Javier Rodríguez Pérez eta Juan Arizaga ornitologoek egindako hegazti-faunaren errolden arabera, Artikutzako espezierik ohikoena txonta arrunta da (*Fringilla coelebs*); gero, bi hauek datoz: txantxangorria (*Erithacus rubecula*) eta txinbo kaskabeltza (*Sylvia atricapilla*).

Hegazti hauek ere ikus daitezke, besteak beste: kaskabeltz txikia (*Poecile palustris*), amilotx mottoduna (*Lophophanes cristatus*), gerri-txori arrunta (*Certhia brachydactylia*), txio txistularia (*P.sibilatrix*), euli-txori beltza (*Ficedula hypoleuca*) eta basoetako gerri-txoria (*Certhia familiaris*). Horiek guztiak baso helduekin lotuta daude. Beste espezie batzuek, ordea, baso gazteak eta larreak nahiago dituzte, hala nola *Phylloscopus ibericus* eta *P. tranchilus*. Ez etsi bat ere ikusten ez baduzue. Saiatu txioa identifikatzen, edo jarrai iezaezu arrastoei, oinatzei eta aztarnei. Haien aurkitzeko toki zoragarria da Artikutza, zuhaitz zahar eta zutik dirauten hil asko dituelako; hegazti ugari barrunbeak egiten dituzte, hala nola okil handiak (*Dendronocopus major*), eta beste batzuek beste hegazti batzuek edo deskonposizio-prozesuek egindakoak erabiltzen dituzte.

Agian, oinatzak edo lumak aurkituko dituzue pasean. Lekuko horiek haien ohiturei, elikadurari, garbitzeko moduei eta abarrei buruzko informazioa ezagutaraz dezakete, hots, animalien bizimodura hurbil gaitzakete.



Fringilla coelebs. Argazkia: Seo.org



Sylvia atricapilla
Argazkia: Seo.org



Erithacus rubecula
Argakia: Seo.org



Ikappsi

Ebird hegazti-behaketaren arloan gehien ezagutzen diren aplikazioetako bat da. Behaketa guztiak erregistratzeko eta ehunka mila pertsonarekin partekatzeko aukera du abantaila nagusi. Gainera, ez da beharrezkoa internet-konexioa, automatikoki erregistratzen baitu kokapena mugikorrek. Hegaztiak identifikatzeko laguntza behar baduzu, aldiz, Merlin aplikazioa duzu, doan; landa-gidari gisa ere erabil daiteke.



Zer jaten dute hegaztiak?

Denetarik jaten dute hegaztiak, eta honela sailkatu daitezke horren arabera: belarjaleak, intsektujaleak, haragijaleak eta orojaleak.

Zizareak,
kakalardoak,
eltxoak, etab

Animalia txikiak,
muskerrak, saguak,
etab.

Landareak
eta haziak

Hartara, batzuek belarrak, fruituak eta haziak jaten dituzte, eta, elikatzeaz gain, haziak sakabanatzen dituzte ere lurraldean zehar.

Hegazti intsektujaleek euliak, eltxoak, kakalardoak eta abar jaten dituzte. Zuhaitz hilak edo deskonposizio-egoeran daudenak dituzte elikagai-iturri, intsektu saproxiliko asko (zur hila jaten dute) baitaude han, baita larba ugari ere. Beste batzuek (harrapariak), aldiz, beste animalia batzuk (harrapakinak) harrapatu edo beste animalia batzuek harrapatutakoak jaten dituzte, hala nola arranoak eta saiak. Ugatzek, gainera, hezurak jan ditzakete (osteofagoak edo hezur-jaleak dira).

ERRAIETATIK

Udaberria iritsi da jada. Zer aldaketa izaten dira ekosisteman?

Ipar-hemisferioan, udaberria martxoaren 21ean hasi eta ekainaren 20an bukatzen da. Tenperatura igo egiten da urtaro honetan, eta eguzki-ordu gehiago dago, eta argitsuagoak. Natura neguko lozorrotik esnatzen da. Prezipitazioak igo egin ohi dira, eta urtzaldiak ur-emari gehiago dakar ibaietara.

Badirudi aldaketa klimatikoa aurreratu egiten ari dela udaberria urtetik urtera. Bada zuzeneko lotura bat tenperaturaren eta espezie hostogalkorretako hostoen kimatzearen artean. Izan ere, urtetik urtera, fenomeno hori egun batzuk lehenago gertatzen ari da beroketa globalaren ondorioz, eta horrek kate-eraginak ditu ekosistema guztietan.

Ingurumenaren Nazioarteko Eguna (ekainak 5)







Ingurumenaren kontserbazioarekiko konpromisoa urte osoan zehar izan behar badugu ere, ekainaren 5ean ospatzen da Ingurumenaren Nazioarteko Eguna. Nazio Batuen Erakundeak (NBE) ezarri zuen, 1974an. Urtero, gai bai hartzen da ardatz munduko biztanleak sentikortzeko, eta herrialde bat hautatzen da anfitrioi. Iaz, Txina izan zen, eta gaia, airearen kutsaduraren aurkako borroka. 2020an, Kolonbiak hartu du lekukoa, eta biodibertsitatea izango da gaia. Zalantzarik gabe, biodibertsitatearen kontserbazioaren adibide bat izan liteke Artikutza, baita Ingurumenaren Nazioarteko Egunean aipatzeko moduko erreferentea ere.

Urtetik urtera, aldarrikapen-plataforma bilakatzen da mundu osoko pertsona, komunitate eta gobernuak kontzientziatzeko planetak aurre egin behar dien ingurumen-erronkei buruz. Mundu osoko hiri eta herriek makina bat ekintza eta hitzaldi programatzen dute, baita inguruneak garbitzeko ekintzak planifikatu eta ingurumen-heziketarako tailerrak egin ere. Aurten, kontuan hartuta gauden osasun-krisiaren egoera, beste modu batean ospatuko da eguna ziur aski, baina hedatu behar duen mezuak bere horretan jarraitu behar du.



Antzeman al duzu? Zertan? Kontaiguzu!
(artikutzanatura@donostia.eus)

Kontuan hartzeko beste egun batzuk:

-  Ingurumen-heziketaren munduko eguna: urtarrilaren 26an.
-  Naturaren munduko eguna: martxoaren 3an.
-  Uraren munduko eguna: martxoaren 22an.
-  Lurraren munduko eguna: apirilaren 22an.
-  Ozeanoen munduko eguna: ekainaren 8an.
-  Basoen munduko eguna: martxoaren 21ean.
-  Lurzoruaren munduko eguna: abenduaren 5ean.

BILDUMA



Arrano beltza, *Aquila chrysaetos*

Deskribapena

Accipitridae familiakoa da. Talde horretako hegaztiak egunekoak dira, eta bereizgarri hauek dituzte, harrapatzera bideratutako ezaugarri ebolutiboak guztiak: kako formako moko sendo eta handia, atzapar indartsuak eta ikusmen bikaina, ehunka metrotara dagoen harrapakin bat ikusteko gai. Hego-zabalera handikoak dira (2 metro inguru), eta ia 7 kiloko pisua izan dezakete. Harrapari gehienak bezala,

emeak arrak baino handiagoak dira.

Hegazti errupikola da, hau da, harkaitz bertikaletan jarri ohi du habia, nahiz eta batzuetan zuhaitzetan egin. Bikotekide bakarra izan ohi dute arrano beltzek.

Ale helduen lumen kolorea gaztaina iluna da; lepoan eta isatsean, ordea, zuria da, eta buruan urre-kolorera hurbiltzen da. Beste arrano batzuek ez bezala, lumaz estalita dituzte hankak, eta ez ezkatas.

Elikadura

Askotariko dieta du, eta ugaztun ugari jaten ditu, txikiak zein ertainak, hala nola saguak, urtxintxak eta untxiak. Hegaztiak eta arrainak ere jaten ditu, baita narrastiak ere, eta airetik harrapatzen ditu. Sarraskia ere jan dezake.

Ehizan, banaka zein bikotekidearekin aritzen dira; harrapariari jarraitzen diote harik eta nekatuta eta inguratuta sentitu arte.

Banaketa eta babes

Mundu mailan gehien hedatutako hegazti harraparietako bat da arrano beltza, eta gune menditsu gehienetan dago Iberiar penintsulan. Dena den, nabarmen murriztu da populazioa Erdialdeko Europan, eta desagertu egin da hainbat tokitan, giza jardueraren eraginez.



Zer dira kategoria taxonomikoak?

Biologiak izaki bizidunak haien arteko antzekotasunen eta hurbiltasun ebolutiboaren arabera ordenatzeko/sailkatzeko modu da. Adibidez, elefante bat eta sagu bat erreinu (Animalia), filo (Chordata) eta klase (Ugaztunak) berekoak dira, baina ez familia berekoak eta, are gutxiago, espezie berekoak.

Erreinua

Filuma

Klase

Ordena

Familia

Generoa

Espezia

SUAREN EPELEAN




Portadas del libro contrato animal.

“El contrato animal ” (*The animal contract*) 1990ean argitaratu zen Desmond Morris zoologo eta antropologo ospetsuaren liburu hori. Gure espezieak animaliekin izandako erlazioa aztertzen du. Nola igaro diren animaliak, denboraren iraganean, errespetatuak izatetik (gizakien biziraupena bermatzearen truke) gehiegi ustiatuak izatera (mundu mailan dibertsioa, konpainia, irabazia eta elikagaiak emateko). Animaliekiko dugun jarreraz hausnartzen du egileak, eta ideia hau azpimarratzen du: gizakiak “kontratua animaliekin” ezarri behar du, zeinaren bidez onurak eskaini eta jasoko diren maila berean eta planetaren oreka naturala bermatuko den.

IRUDIEN GALERIA



Hegan egingo dugu. Miruak (*Milvus Migrans*). Argazkia: I.Uranga



Labeta barrutik eta kanpotik. Argazkia: E. Ruiz



Hildako zuhaitza okilak ikaztutako zuloak dituen.
Argazkia: E. Ruiz



Badoa ura!. 2020/04/17 egondako sutea. Argazkia: Egile ezezaguna.



Orreagako kolegiatarn mugarra. Argazkia: E. Ruiz



Arantza Izutik. Argazkia: E. Ruiz

Gogoratu gurekin partekatu nahiko bazenu Artikutzan ateratako argazki bitxiren bat edo gustuko duzunen baten bat, bidal diezaguzu helbide honetara: artikutzanatura@donostia.eus! Horrekin batera, bidali zure izen abizenak eta aipatu noiz, non edo nola atera duzun argazkia eta idatzi ezazu harentzako izenburu bat. Animatu!

“Artikutzako Ttanttak” Buletina jaso nahi baduzu, bidali zure datuak (izena, abizenak eta posta elektronikoaren helbidea) artikutzanatura@donostia.eus helbidera eta posta elektronikoz jasoko duzu.

Halaber, jarduera bat egin nahi baduzu edo informazioa jaso, jarri gurekin harremanetan:

Znbk: 679 613 016





DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Ingurumena
Medio Ambiente

